

# telesforo ahantzia?

Hiru urte pasa dira. Honelako martxoaren 9 batez alnddu zitzaigun Telesforo berriak.

Kolore guzietako etsaien artean, jakina, txanpana edan ez ospatu zen haren heriotzaren berria: «Bazuan garaia: haren txorradak bukatu dituk», esaten zuten ardi-larruzko otsoek. «Hombre nefasto para Espafia y para la regi6n vasco-navarra», beste batzuk.

Abertzaleen artean, berriz, sekulako tristura hedatu zen, baita zalantza garbi bat ere: «nork izango du orain kategoriarik aski, hark lor zezakeena lortzeko?». Eta, gaur ere, hiru urte joan ondoren, hark utzitako hutsune gaitza bete gabe agertzen zaio askori.

Ahots bero irmo hura falta zaigu:

«Aberkideok!... Ez gara gu espafiolak, ez gara frantsesak... Euskadi da gure Aberri bakarra... Eta Euskadiren independentzia lortzeko odola isuri behar baldin bada, hemen dago gure prest... Oimazetan irabaziko dugu, beste herriek bezala; baina irabazia dago Euskal Herriaren batalla... Gora Euskadi Askatuta!».

Gero eta nabarmenkiago falta da ahots bortitza hura gure batzarretan. Eta aitortu beharra dago. Baina, zergatik falta zaigu?

Honegatik, ene ustez: Telesforo-ren oihua, herri zapaldu honen garrasi ausarta zelako. Argi eta garbi mintzo zen.

Eta, zer zion ba Telesforok? Idatzirik ere askotan azaldu zuen bezala, hiru gaitzek jota dagoela Euskal Herria:

- erdituta dagoela.
- erdaldunduta dagoela.
- menperatuta dagoela.

Behin eta berriz azpimarratzen zuen Telesforok gure herria Aturri ibaian hasi, eta Ebro ibairaino heltzen dela; eta gure nazio-projektuan horixe dela ukatu ezinezko eskualdea. Ez Hegoaldeko «laurak bat» murrizta; eta are gutxiago «irurak bat» delakoa.

Telesfororen ideia ximple horrek, ordea, benetan sinesten eta bizieratzen denean, ondorio zabalak ditu. Zeren-eta gure Aberria Ebrotik Aturri-raino baldin bada, nola gerta daiteke Iparraldeko anaien kezka erabat gure ez agertzea? (Hobeki esan: bortxatu gabe, eta berez, erabat gure ez izatea?)

Zatiketa nagusi horren ondorioz (Nafarroa/Vascongadas; ahantzi gabe), bi sentikortasun desberdin nagusitzen ari dira gure herriak; baita «abertzale» izeneko multzo batzutan ere. Askotan Larzac edo

Quebec-eraino heltzen da ipartarren anaitasuna; Quebecarren eta Occitaniarren kantu abertzaleak ezagutzen eta maitatzen dira, eman dezagun; baina Cuba-tarrenak arrotz gertatzen dira. Eta gauza bera alderantziz. Hortxe ageri da garbiki gure barne-erdi biketa. «Abertzaleen» artean ere, bi herri desberdin ari dira mamitzen piskanaka: muga ofiziala, gure arteko muga balitz bezalaxe.

Telesforok, abertzalea zelako, Iparraldean urte pila bat pasa ondoren, eta hiru-mintzodun osoa izanik, barnetik ezagutu zuen erdi biketa hazkor hori; eta etengabe salatu zuen frantsesetako, edo-ta espafiartzeko, arrisku hori: «Gu izateko. Aturri-tik Ebro-raino izan behar». Eta ez hitz hutsetan. Anaitasun hori obratu egin behar baita ekintzetan ere; eta ez taktika merke eta igarokorrez.

Telesforo, era berean, abertzale-tasunaren mezua zabaltzeko erdara baliatzen bazuen ere, euskaltzalea zen erroik: «euskaririk gabe, Euskadirik ez», esan zezakeen.

Helburu hau arrotz bihurtuko ote zaigu? Gehiegikeria ote da? Espafiolisten artean bai, jakina; hauen teoria eta praktikan batera, gure herriaren eta gure erakunde euskalduntze-behara izan baita helbururik kritikatuena, salatuena eta ukatua (oraindik era den bezala).

Mintza begiuko A. Memmi, ordea, kolonialismoaren azterzaile

zorrotza: «La revendication la plus urgente d'un groupe humain qui s'est repris est certes la lib6ration et la restauration de sa langue».

Telesforok hauxe uste zuen; eta bizi guztian barrena izan zen, hitzez eta lumaz, euskaltzale suharrak.

Telesforok, hirugarrenekorik, saiaketa erreformistez nazkatutik, haustura eta askatasuna eskatzen zituen gure herriarentzat. Edota, bere azkeneko mitinetan, silabak markatu, oihukatu ohi zuen bezala: in-de-pen-den-tzi-a.

Telesforok bazekien (eta ondoko hiru urte hits hauek ez dute beste-rik erakutsi) gaurko lege-egoera honetan Euskal Herriak ez daukala burua altxatzerik; eta legetasun horren errespetaun suntsitzeaz beste irtenbiderik ez zaigula gelditzen. Haren ahotsak, horregatik, bere balio osoa gorde du gaur ere.


Programa oso bat, beraz, Telesfororena. Ukatua izan den herri bati, osoa iruditzen baitaio nazio askatasun programa hori.

Nazio-mailan ukatua izan ez denari, ez. Betikoa. Berririo Memmi: «Attendre du colonis6, qui a tant souffert de ne pas exister par soi, qu'il soit ouvert au monde, humaniste et internationaliste, paraît d'une 6tourderie comique. Alors qu'il en est encore a se ressaisir, a se regarder avec 6tonnement, qu'il revendique passionn6ment sa langue dans celle du colonisateur...»... Nork ez du Memmi gogaide senditzen?



TXILLARDEGI

## semaforo gorria



Eskerrak semaforo gorriak iheri ez dakiela, bestela agian arantzale hasiko zen eta hor merkatu batuko uretan begira nolako disuasioak dabilzan.

Frantses horiek demonioak zeukatek gero! Baina demonio txarrak. Munduan zehar, Afrikan, Libanon eta abar, frantsesek ez dituk azken erretiratze-koak bai ordea zerrikeria galantak egin. Ondarrutarrek lehendik ere bazekiten horien berri, baina orangoan sinestu ezinik gelditu dira. Arrantza apur bat egiteagatik kanoeekin tiraka hasi behar bazazkigu. Versailles-i zu ematen hastea edo horrelako berbitz pentsatu beharko diagu. Merkatu batuan sartzeko ederki gaudela esan nahi du horrek.

Beste itas herri batera jorik, Santurtziko udaltzainek ere gaez kontuz ibiltzea daukate. Poliziak udaltzainek detentitzen hasi zaizkigu. Hori eskandalo handituz jotzeko da nonahi, baina ikusiko duzu nola urik ez den irabiatu ere egingo. Eskubide autonomikoei laster aurkitzen dute hemen goia edo behe. Autonomikoei diogu, udaltzainek Ezuko Gobernu-txoaren mendekoak direlakoan baikaude, baina nork jakin hemen sor norean den. Ordua heldutakoa, badakigu denok poliziarenak gabela eta polizia norena da? Ai ama! Oraintek egin dinagu galdera inperintentea. Goazen hurrengo kalera, armaturik eta mokorrik baitaioz.

-Felipito Europatik bueltan etorri al duk?  
-Hori duk informazioa dauka-ena, hi! Mundu guztia esaten ari denik ere jakin ez?  
-Gehienean mundu guztiak esaten dituenak gezurririk haundiena izaten dituk.  
-Esate baterako?  
-Ba, esate baterako, politikoa herriaren zerbitzuan ari direla. Herriak hainbeste zerbitzari izanik, nola zegok, ba, urtean baino urtean problema gehiago eta haundiagoak?

Felipito problema haundi horiek konpontzera joan omen da Belgikan zehar. Balantzea? Merkatu Batuan sartzeagatik, OTANen gelditu eta Merkatu Batuan sartu ez. Edo sartzen bagaituzte, luma eta guzti goaz txorizotara. Hegaztiekin ez dela txorizorik egiten? Horrela dituk, ba, txoriak.

Krisisa dela? Bankuentzat ez. Joan den urteko irabazietan agertu diren milaka milioiak nora ote doaz? Nondik datozen badakigu, krisisetik hain zuten. Nora ote doaz? Beharbada zati batzuk Rumasarekin ibiliko dira Jamaikan zehar. Beste zati batzuk Suizatik kosmopolitismoa egitera, hau da, munduan ahal dena harrapatzera. Beste zati batzuk erfuxiatuen hilketak ordaintzera, eta beste guztia ere horrelako zerbitzarako. Horietan hegoak ez bada ere, ez al dago hego puntak moztzerik? Gustora egingo genuke, ba, lan hori dozena erdian bat semafororen artean. Felipitok ez du pasiatu besterik egingo eta.

Xabier AMURIZA

## colaboraci6n

### atentatu indiskriminatuak eta gal

«Si ellos (ETA) atentaran contra la poblaci6n de forma indiscriminada, nosotros pondriamos un coche bomba al paso de una manifestaci6n de HB o KAS».

Dio GALen azken komunikatuak. Jakina da ETAk ez duela atentatu indiskriminatuak egin, eta egingo ere. Beraz, eta hobe amets txar bat besterik ez balitz, suma daiteke horien burutan zer dabilen: Gisa honetako atentatu bat montatu: jendez beteriko «Casa del Pueblo» batetan txiki-zioa egin bonbaz; edo, ETAREN atentatu itxura emanaz, jendez haundia dabilen kale bat tirokatu, jende artean berde edo gris bat ere badelarik, sinisgarriagoa izateko... edo gauza sofistikatugoren bat. Gero ETARI eta ezker abertzaleari bota kulpak, ondoren «coche-bomba»rena egin «erantzun» gisa, «abisatu genuen» esanez.

Baliteke hau gau sukartsu batetako amets txar bat izatea, baina bada ezpada ere, erne.

ERNE

### ante la nueva campane de «seguridad ciudadana»

En los 6ltimos d6as ha vuelto a despertar nueva inquietud el tema de la seguridad ciudadana. Una serie de actos (manifestaciones, cierre de establecimientos, huelga de taxistas, etc...) se han sucedido en Barcelona y en otras ciudades del Estado espaol, y que quizas pronto veamos aqu6 en un intento de presionar a la Administraci6n para la puesta en marcha de nuevas medidas que den «soluci6n» al problema; medidas que se resumen en una mayor presencia policial en las calles y una mayor dureza en las penas.

Pero existe, en realidad, voluntad de buscar una soluci6n real al

problema? ¿Se han buscado las causas y el por qu6 de la situaci6n social actual?

Evidentemente no. Resulta m6s f6cil realizar una politica de parche, una politica ciega a la realidad social y que se limite a defender unos determinados intereses econ6micos y pol6ticos. «Seguridad ciudadana»... ¿Qu6 se esconde detr6s de este t6rmino? ¿De qu6 seguridad nos hablan?, evidentemente no de la seguridad del pasado, o del joven que a6n no ha encontrado su primer empleo... ¿Qu6 seguridad nos pueden ofrecer quienes son los 6nicos culpables de la actual situaci6n social y pol6tica?

Una vez m6s el t6rmino de «seguridad ciudadana» est6 siendo utilizado sirviendo de tapadera a ocultos intereses.

ASKAGINTZA

### el 8 de marzo, un d6a m6s

Este 8 de marzo tampoco ha sido el d6a de la mujer. Ayer fue un 8

de marzo m6s lleno de mujeres de la c6rcel y en este 8 de marzo, tampoco hemos soldado los hombres nuestros privilegios.

Sin embargo el PSOE se viste de gala y se empeña en cambiar un d6a de lucha de la mujer por un mont6n de alagos y mentiras.

Es como cualquiera de nosotros que durante todo el a6o ignoramos y marginamos a la mujer y llega su cumplea6n y la cubrimos de regalos y de cadenas para lo que le resta de a6o. No enga6amos a nadie ni a nosotros los hombres que vamos por la vida de tios majos ni el PSOE saltando palomas blancas sobre tantas mujeres apaleadas. Olvid6ndola en el hogar, en la c6rcel, limitada en su sexualidad hasta el punto de que no dispone de su propio cuerpo.

Las mujeres no necesitan que nadie les afege, ya se bastan ellas solas. El 8 de marzo no es el d6a de la mujer, el 8 de marzo, es un d6a m6s de la lucha por su liberaci6n.

Miguel Angel GURBINDO MARIN